

NON ZOPA, HAN JANIZARIA



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Otomandar Inperioa, 1330. Murad I.a sultanak janizarien taldea sortu zuen (turkieraz *yeniçeri* hitzak soldadu berriak esan nahi du), sultana bera eta errege-jauregia zaintzeko bereziki trebatutako infanteriako soldaduekin. Guardia pretoriar moduko hori, hasieran, preso kristau gazteek eta mendean hartutako herrietako nerabeek osatzen zuten. Entrenamendu fisiko estuez gain, mutikoei erlijio musulmana, hizkuntzak, literatura eta beste hainbat arlo irakasten zizkieten, ezin zuten ezkondu eta sultanaren jabego pertsonala ziren. Atzeritar haiek lehen otomandar ejertzito iraunkorra osatu zuten, horrenbestez. Aurreago, 1594an, Ocak sultanak turkiarrei ere janizarien taldean borondatez izena emateko aukera emango zien.

Baina lehen janizari behartu haiek, menderatze teknikari, diziplina hertsia eta heziketa bideratuari esker, leialtasun lotura berezia eratu zuten sultanarekiko nahiz beren artean. Eliteko talde militarretan ohiko denez, zorrotz antolatuta eta egituratuta zeuden. Ezohikoa zen, ordea, egitura horren oinarria: zopa.

Gorputz militarra *orta* edo erregimentuetan banatua zegoen. Bakoitzaren buru *tchorbadji bachi* edo zopa-banatzalea zegoen, koronelen mailan. Haren azpian, *achtchi bachi* edo sukalde burua, kapitaina, alegia. Ondoren, tenientea zertoren, *sakka bachi* edo urketaria. Jani-



MATTEO PEREZ D'ALECCIO

zarien ohiko txanoa, *bork* izenekoa, koi-lara batekin apaindua zegoen (gerora, lumez, lorez eta beste hainbat objektuz edertuko zituzten txano bereizgarriak), erregimentuko kide guztiak "jankideak" baitziren, eta haien estandarte brontzezko pertz bat, *kazan* izenekoa. Janizari-entzatzat, umiliaziorik handiena *kazana* galtzea edo etsaiek kentzea zen. Zopa-pertzik gabeko erregimentua koldartzat eta ezgaitzat jotzen zuten.

Martxan, *kazana* erregimentuaren buruan eraman ohi zuten; kanpamentuan, zopa-banatzalearen denda parean jartzen zuten pertza, tropak non bildu behar zuten adierazteko. Ostiraletan ezik, egunero, bi janizarik pertza bizkarka eramaten zuten, makil batetik zintzilik, hirugarren batek atzetik jarraitzen zien, egurrezko burruntzali haundi batekin, eta dendaz denda ibiltzen ziren zopa banatzen. Ostirala sultanari esanekotasuna

Otomandarrak Birgu (Malta) setiatzen, 1565eko uztailaren 6an. Erdian, janizariak, gorritz jantzita eta bork izeneko txanoa buruan.

eta leialtasuna adierazteko eguna zen, eta janizariak, pertzak hartuta, sultanaren sukaldeetara joaten ziren, han jakiz betetzeko. Sultana "jaten ematen digun aita" zen haientzat. Baina ez beti; sultanak hartutako erabakiren batekin bat ez zetoze-nean, ez ziren behar zen orduan iristen edo pertza betetzeari uko egiten zioten. Matxinada arriskuaren seinale izaten zen hura sultanarentzat. Janizariak ez ziren hasierako menpeko otzan haiek.

XIX. mendean hain ziren boteretsuak, sultana kargutik kentzen ahalegindu baitziren. Ez zuten helburua lortu eta Mahmud II.ak armada gorputza desgitea agindu zuen, jaikialdiaren buruak exekutatu ondoren. ■



Alkholemia isuna antzinako Egipton

Duela 2.800 urte inguruko egiptoar papiro batean epaiketa eta zigor berezi baten berri jasotzen da: gurdia alkoholaren eraginpean gidatzeagatik zigortu zuten epaitua eta, dakigula, hori da arrazoi horregatik jasotako isunik zaharrena. Gidariak estatua bat jo zuen lehenik eta, ondoren, neskato bat harrapatu. Epailak zigor eredugarria jarri zion:

mozkortu zen tabernako atean urkatuko zuten eta gorpua han utziko zuten, animalia sarraskijaleek desagerrarazi zezaten.

1897an atxilotu zuten lehenengoz auto-gidari bat mozkortuta gidatzeagatik. George Smith izeneko Londresko taxilari zen eta 25 txelineko isuna jarri zioten taxiarekin eraikin bat jotzeagatik. ■